



**2017KO APIRILAREN 7KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren zazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko martxoaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 24 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, 44.859,20 € (BERROGEITA LAU MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEI ZENTIMO €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 15-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea, 2017ko apirilaren 3an, onuraduna beste baliabide baten erabiltzaile izatera pasako delako (laguntza pertsonalerako presazioa).

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 15-01-015 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92.5 €ko diru laguntza ematea urtariletik apirila arte eta alokairuko gastuetarako hilean 250 € ematea urtariletik apirila arte. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-014 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46.25 €ko diru laguntza ematea urtariletik abendura arte eta alokairuko gastuetarako hilean 125 € ematea urtariletik abendura arte. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.



- 16-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46.25 €ko diru laguntza ematea urtarrietik abendura arte eta alokairuko gastuetarako hilean 125 € ematea urtarrietik abendura arte. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.
- 16-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46.25 €ko diru laguntza ematea urtarrietik abendura arte eta alokairuko gastuetarako hilean 125 € ematea urtarrietik abendura arte. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.
- 16-01-017 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 83.25 €ko diru laguntza ematea urtarrietik otsailerarte eta alokairuko gastuetarako hilean 220.5 € ematea urtarrietik otsailerarte Eskatutakoaren %90 da.
- 17-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntzan alta ematea urtarrietik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da
- 17-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 €ko diru laguntzan eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntzan alta ematea urtarrietik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.
- 16-01-013 zbk.dun esped.: bizi diren etxean elkarbizitzan aldaketak eman ondoren, etxebizitzaren mantentze gastuetarako eta alokairu gastuetarako diru laguntzen % 50etik %100a jasotzera pasako da apirileko hilabetetik aurrera. Hau da, mantentze gastuetarako 92,5 € hilean eta alokairurako 250 € hilean.
- 17-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5€ko diru laguntza eta etxeke alokairuaren gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntzan alta ematea urtarrietik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Elbarrituen garraioa.-

Ordiziako Gureak Tailerretara garraioa ordaintzeko 2017ko diru laguntza ematea ondorengo pertsoneri:

- 17-17-01 zbk.dun esped.: 400,51 € urtean, hau da, 36,41 € hilean abuztuan izan ezik.
- 17-17-02 zbk.dun esped.: 400,51 € urtean, hau da, 36,41 € hilean abuztuan izan ezik.
- 17-17-03 zbk.dun esped.: 400,51 € urtean, hau da, 36,41 € hilean abuztuan izan ezik.
- 17-17-04 zbk.dun esped.: 400,51 € urtean, hau da, 36,41 € hilean abuztuan izan ezik.
- 17-17-05 zbk.dun esped.: 400,51 € urtean, hau da, 36,41 € hilean abuztuan izan ezik.

Ifarra-Hegoa lankidetzeta programa.-

2017ko urteko Ifarra-hegoa laguntzetarako deialdia egitea.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZ EGINDAKO KONTRATAZIOA .-



LAZKAOKO UDALA

- Gas naturalaren hornikuntza kontratazioa.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Gobernatzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren foru diputatuak, 2016ko abenduaren 1eko foru aginduaren bitartez, GAS NATURAL SERVICIOS SDG S.A., I.F.Z.: A-08431090, enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "Gas naturalaren" hornidura egiteko esparru akordioa (X16023) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin araber, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko apirilaren 3an emandako txostenaren araber proposatu du "gas naturalaren hornikuntza" emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen horniduraren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko hogeita bi mila zortziehun eta hogeita zortzi (22.828 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua GAS NATURAL SERVICIOS SDG S.A., I.F.Z.: A-08431090, enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez gas naturalaren hornidurarako eratorritako kontratua (X16023) GAS NATURAL SERVICIOS SDG S.A., I.F.Z.: A-08431090, enpresari esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- GAS NATURAL SERVICIOS SDG S.A., I.F.Z.: A-08431090, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, gastu programa ezberdinetan, gas naturalaren hornidurarako gastua jasotzen duten 221.04 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.



LAZKAOKO
UDALA

V.- HEZKUNTZA ETA EUSKARA BATZORDEKO DIRU LAGUNTZAK.-

Euskarako zinegotziak egindako diru laguntza proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki du aho batez:

Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK).-

Korrika 20. ekitaldiaren antolaketarengatik 600 € ematea.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du udalak konponketak eta egiten dituenean, segurtasun aldeko neurriak hartu beharko lituzkeela, itxiturak jarri eta abar, eta horretan kontu izateko eskatzen du.

Alkateak erantzuten dio ondo iruditzen zaiola baina orokorrean neurriak hartu izan direla.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA